


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,2 jaitsi dira 2009ko azaroan, aurreko hilabetearen aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2008ko azarotik 2009ko azarora) eraikuntzaren kostuek % 1,1 egin dute behera.

EUSTATEN datuen arabera, Euskal AEn eraikuntzako kostuen indizeak % 0,2ko beherakada izan du 2009ko azaroan, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa % 1,1 jaitsi da.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2009



(*) Gehikuntza azarokoko urte artekoa da

Aurreko hilabetearen aldean, 2009ko azaroan lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (% 0,0), baina lehengaien kostuek % 0,3 egin dute behera.

Urte batetik bestera, lehengaien kostuak % 2,0 egin du behera eta lanekuarenak % 2,4 gora.

Dena den, eta hilabete batetik bestera, eraikuntzaren eta obra zibilaren azpisektoreek zeinu ezberdineko aldaketak izan dituzte lehengaien kostuan. Eraikuntzak % 0,4 egin du behera aurreko hilabetearen aldean eta obra zibileko lehengaiak ez dute aldaketarik izan (% 0,0). Azpisektore bi horien urteko bilakaeran ere ezberdintasunak eman dira, baina bi kasuetan tasa negatiboak eman dira: eraikuntzako lehengaien kostuek % 1,9 egin dute behera, eta obra zibilekoek % 2,3.

Azken hamabi hilabeteetan, sektorean kontsumitutako lehengaien prezioetan beherapen handienak izan dituzten batzuk hauexek izan dira: metalurgia (-% 21,1), energia elektrikoa eta gasa (-% 15,3), zuraren industria (-% 5,6) eta industria kimikoa (-

% 3,4). Bestalde, urteko prezioetan (2008ko azarotik 2009ko azarora bitartean) inflazio-tasa handienak izan dituzte hurrengo sektoreetako lehengaiek: ura (% 7,4), petrolioaren birfinketa (% 2,9), industria ez metalikoa (% 2,0) eta altzarien fabrikazioa (% 1,8).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	2009KO AZAROA GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	115,7	-0,2	-1,1	-0,7
ERAIKINAK	115,7	-0,3	-1,1	-1,1
OBRA ZIBILA	115,6	0,0	-1,0	0,8
LEHENGAIEN KOSTUA	114,7	-0,3	-2,0	-1,6
ERAIKINAK	114,8	-0,4	-1,9	-2,0
OBRA ZIBILA	114,3	0,0	-2,3	0,2
LAN-ESKUAREN KOSTUA	119,4	0,0	2,4	2,4

Iturria: EUSTAT
Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

 Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

 Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp